## Xalbadorren bertsoak ‘Mintzoaren arnasa’-n

ETB1 • 14:40ean

Xabier Letek Fernando Aire *Xalbador*-en bertsoak kantatuko ditu gaur *Mintzoaren arnasa* saioan.



### ETB 1

07:15: **Lurraren arnasa.**
07:45: **Euskal Herritik.**
08:15: **Euskal Herrirako garaia.**
08:25: **Kazetari ausartak.**
08:50: **Erroman jandalo.**
09:10: **Bruno gaztea.**
09:30: **Cantervilleko mamua.**
10:10: **Egi bidean.**
10:30: **Meza Santua.**
11:30: **Kirolaz blai.**
Gure kintzea (11:30); Aizkolariak (12:30).
14:00: **Gaur egun.** Albistegia.
14:40: **Mintzoaren arnasa.**
15:25: **Boiseko euskaldunak: Jaialdi 2000.**
16:35: **Gagnorarik gagbe.**
17:00: **Kirolez Kirol:**
Trinketea: Xare.
Traineru estropadak: BBK Bandera.
19:30: **Futbol laburpenak.**
20:30: **Gaur egun.**
20:40: **Futbol laburpenak.**
21:45: **Ander eta konpainia.**
22:10: **Zine Oro.**
**Airbag.**
Zuz.: Juanma Bajo Ulloa. Akt.: Karra Elejalde, Fernando Guillen Cuervo. 1997.
00:40: **Zinema.**
**Errugabeen hilketa.**
Zuz.: James Glickenhaus. Akt.: Linden Ashby, Jay Bernard. 1993.
02:25: **Oporrock.** Lou Reed eta John Cale.
03:10: **Easy Peasy.**
04:50: **Zaharrak berri.**
05:15: **Ikusgela.**

### ETB 2

07:05: **La Guerra Civil en Euskadi.** Amanecer sangriento.
08:00: **En busca del misterio.**
08:30: **Celebrity.**
09:15: **Tiempo para Euskal Herria.**
09:20: **Luar.**
11:05: **Mareas vivas.**
13:05: **La ley de la bahía.** Telesaila.
13:55: **Rutas de solidaridad.**
14:25: **Zoombados.**
14:58: **Teleberri.**
15:45: **Zinema.**
**Licencia para matar.**
Zuzendaria: John Glenn. Aktoreak: Timothy Dalton, Carey Lowell. 1989.
18:25: **National Geographic.**
19:20: **Stargate.**
20:58: **Teleberri.** Albistegia.
21:45: **El Derby.**
00:00: **La noche fantástica:** El elegido. (00:00ean).
Más allá del límite (01:40ean).
02:20: **Zinema.**
**Angeles cinturon negro.**
Zuzendaria: Chi Kim. Akt.: Shawna Larson, Rebekah Bartlett. 1965.
03: 40: **Pensacola.**
05:05: **Amaiera.**

## gaurko filmak

Iñaki Lazkano

**■ AIRBAG**
*La madre muerta* drama poetiko krudel baina ederra sortu ostean, *Airbag* komedia ganberroa errodatu zuen Juanma Bajo Ulloa gasteiztarrak. Euskal Herriko zein Espainiako zinema aretoak lehertu bazituen ere, nahikoa film arrunta da. Juantxo burgeskume donostiarrak prostituta beltz baten ipurtzuloan galduko du ezkontzako eraztuna ezkondu aurreko festan. Eraztuna berreskuratzeko saioan, familia etsai bateko pistolariekin nahasi egingo ditu Juantxo eta haren lagunak mafiako *capo* anker batek eta gauzak dexente korapilatuko zaizkie. Erritmo ona eta inspiraziozko betetako umore ukitu bakan batzuk dituen arren, trauskila da oso.

**■ RISKY BUSINESS.**
Gazte nerabeei zuzendutako komedia atsegina da. Joelen gurasoak oporretara joanen dira eta gaztea etxean utziko dute bakarrik. Joel egoeraz profitatu eta lagunak gonbidatuko ditu. Parrandarekin nahikoa ez duenez gero, prostituta batek sexuaren plazerrak erakutsiko dizkio Joel herabeari. Apurka-apurka, ordea, gauzak aldrebestuz joanen zaizkio gizajoari. Tom Cruise gaztetxoak galtzontzilotan egiten duen dantzaren eszena famatua egin zen oso. Film arin eta entretenigarria da.

**■ EL GRAN HALCON.**
Michael Lehmann kaskarrak Bruce Willis eta Andie McDowell aktore ezagunak bildu zituen akzioa eta komedia ezin okerrago nahasten dituen ekoizpen irrigarri horretan. Kartzelatik irten berria den lapur trebe batek bergizarteratu nahi du baina gaizkile zital batzuek ez diote bide onera itzultzen utziko. Gidoiak *speed* gau batean idatzita dirudi eta Willis eta McDowellen artean ez dago kimikarik. Bitxikeria txolin bezain aspergarria da.

### *90eko hamarkadako ‘A Clockwork Orange’*

**■ TRAINSPOTTING.** Hollywoodeko urrearengatik deabruari arima saldu aurretik, zinemagile berritzaile eta interesgarria izan zen Danny Boyle. *Shallow Grave* apartarekin ezagun egin eta gero, ahoa bete hortz utzi zuen mundu osoa *Trainspotting* basarekin. Irvin Welsh idazlearen izen bereko eleberri polemikoa oinarrian hartuta, 90eko gazteriaren balore eta etorkizun ezaz hausnartu zuen komedia beltz politikoki desegoki horretan Boylek. Auzune txiro batean bizi diren gazte drogazale batzuen bizipen gordinak ditu ardatz filmak. Surrealista, zinikoa eta apurtzailea da.

| | | |
|---|---|---|
| **Caballo salvaje** | 1994, Caroline Thompson, 84 m. | ♠♠ | 15:30 A3 |
| **El gran halcón** | 1990, Michael Lehmann, 93 m. | ♠♠ | 15:30 Tele5 |
| **Licencia para matar** | 1989, John Glenn, 127 m. | ♠♠ | 15:45 ETB2 |
| **Empire Records** | 1996, Allan Moyle, 86 m. | ♠♠ | 17:30 Tele5 |
| **Sube y baja** | 1958, Miguel M. Delgado, 101 m. | ♠♠ | 18:00 TVE1 |
| **Au revoir à jamais** | 1995, Renny Harlin, 110 m. | ♠♠ | 20:55 TF1 |
| **Peregrino** | 1999, Harley Cokeliss, 90 m. | ♠♠ | 21:40 TVE1 |
| **Airbag** | 1997, Juanma Bajo Ulloa, 132 m. | ♠♠ | 22:10 ETB1 |
| **Pour un poignée de dollars** | 1964, sergio Leone, 95 m. | ♠♠♠♠ | 23:10 TF1 |
| **Risky business** | 1983, Paul Brickmann, 98 m. | ♠♠♠ | 23:30 Tele5 |
| **Errugabeen hilketa** | 1993, James Glickenhaus, 93 m. | ♠ | 00:40 ETB1 |
| **Le tunnel** | 1933, Kurt Bernhardt, 75 m. | ♠♠ | 00:45 F3 |
| **Las cosas del querer II** | 1997, Jaime Txabarri, 102 m. | ♠♠ | 01:00 La2 |
| **Angeles cinturon negro** | 1994, Shawna Larson, 82 m. | ♠ | 02:20 ETB2 |
| **La luna de Mojave** | 1996, Kevin Dowling, 91 m. | ♠♠ | 02:30 Tele5 |
| **Café de puerto** | 1958, Rafaello Matarazzo, 88 m. | ♠♠ | 02:45 La2 |
| **Trainspotting** | 1996, Danny Boyle, 90 m. | ♠♠♠♠♠ | 04:50 A3 |

♠ TXARRA · ♠♠ ESKASA · ♠♠♠ BALEKOA · ♠♠♠♠ ONA · ♠♠♠♠♠ BIKAINA



Ewan MacGregorrek —argazkian— Mark Renton drogazale eskoziarraren rola betetzen du Danny Boyleren *Trainspotting* film garratzean.



ww.deika.com
943 344 494
• TELEF. FINKOA
• TELEF. MUGIKORRA
• AHOLKULARITZA INFORMATIKA
• INTERNET
• TELEFONOGUNEAK
DEIKA telekom
ENPRESA ZERBITZUA:
M. Etxeberria 1
ERRENTERIA
Morrongilleta 1
ERRENTERIA
Hirib. Nafarroa 25
BEASAIN
Areizaga 1
URRETXU
BANATZAILE OFIZIALA:
Euskaltel


## irratia ◆

**Radio Euskadi.** 10:00etatik 12:00etara egiten den *Más que palabras* saioa irratiko programaziora itzuli da udarako oporraldiaren ondotik. Bertan Juanito Oiartzabal mendizale gasteiztarra elkarrizketatuko dute gaur. Oiartzabal 1999ko Euskaldun Unibertsal izendatu zuten. Bestalde, saio bereko *Al vuelo* atalean Ecologistas en Acción kolektiboko arduradun Rafa Sanchez ariko da solasean. Halaber, *De cabeza* atalean —psikiatriari buruzkoa— zahartzaroaren alde onak azterturko dituzte. Azkenik, Felix Linaresek zinema kontuak ekarriko dizkigu.

**Herri Irratia.** 10:00etatik 13:00etara Garbiñek aurkeztutako *Saski Naski* magazina entzun ahal izango dugu. Geroago, 14:30etik 15:30era, *Brujula* saioan Niloko Maratoiaren berri emango digu Jesus Torquemadak. 16:00etatik 17:30era Espainiako Vueltari buruzko saio berezia eskainiko dute; gaur finituko da txirrindularitza proba hori. Ondoren, eta 18:15era arte musikaren tarteaz gozatzeko parada izango da. Hurrena, estropadak izango dituzte ardatz, BBK Bandera jokatzen baita gaur, eta, jarraian, Celta-Reala futbol partidak beteko ditu uhinak.